

GIZARTE EKIMENeko AZKEN NEGOZIAZIO MAHAIAK

Aurreko informazio-orrietan esan genuen bezala, joan den irailaren 13ko Gizarte Ekimeneko hitzarmen berriaren negoziazio-mahaian, urrian eta azaroan zehar beste hiru negoziazio-mahai egutegia adostu genuen, patronalek hirugarren bileran kontraproposamena aurkezteko konpromisoa hartzera behartuz.

Joan den astelehenean, azaroaren 7an, hiru bilera horietatik bigarrena izan genuen, eta STEILASEk berriro jarri zituen mahai gainean hitzarmen berrirako proposamenak, 4. eta 5. tituluetan. Gainerako sindikatuek ere bereak azaldu zituzten, eta patronalek, nahiz eta ekainetik ezagutu, entzun eta hirugarren bileran proposamena aurkezteko konpromisoa berretsi besterik ez zuten egin.

Azaroaren 29an izango den hirugarren bilera horretan, Kristau Eskolak eta AICEk negoziazioa eta posizionamenduak hurbiltzea ahalbidetuko duen proposamen batekin etorri behar dute. Orain arte, iragarri dugun bezala "ez negoziazio" fasean jarraitzen dugu, patronalen prozesua luzatzeko estrategia horretan.

Bestalde, atzo, azaroaren 9an, beste negoziazio-mahai bat izan genuen, kasu honetan Lanbide Heziketakoa. Azken bileran, STEILASEk, gainerako sindikatuekin batera, oso argi utzi zuen patronalen proposamenak ez zirela nahikoak fundamentuzko negoziazio bati ekiteko. Hala eta guztiz ere, atzo, Kristau Eskolak eta AICEk ez zuten proposamen berririk ekarri, eta berriro ere bilera edukirik gabeko bilera bihurtu zen.

STEILASEtik patronalei eskatzen diegu azaroaren 29ko bileran LHrako ere proposamenak ekar ditzatela, jarrerak hurbiltzeko eta, jakina, indarrean dagoen hitzarmena urratu gabe. Behin eta berriz esan dugun bezala, Lanbide Heziketa arautzeko prest gaude, baina ez prekarizaziorantz, ezta eskuratutako eskubideei uko eginez ere.

ÚLTIMAS MESAS DE NEGOCIACIÓN DE CENTROS DE INICIATIVA SOCIAL

Como ya comentamos en anteriores hojas informativas, en la mesa de negociación del nuevo convenio de Iniciativa Social del pasado 13 de septiembre, acordamos un calendario de tres Mesas de Negociación más durante los meses de octubre y noviembre obligando a las Patronales a presentar su contrapropuesta en la tercera reunión.

El pasado lunes, 7 de noviembre, tuvimos la segunda de esas tres reuniones y STEILAS puso de nuevo encima de la mesa cuáles son sus propuestas para el nuevo convenio en los títulos 4 y 5. El resto de los sindicatos también explicaron sus propuestas y las patronales, que ya las conocen desde junio, escucharon y se limitaron a refrendar su compromiso de presentar su propuesta en la tercera reunión.

En esa tercera reunión, que será el 29 de noviembre, Kristau Eskola y AICE tienen que venir con una propuesta que permita la negociación, el acercamiento de las posturas. Hasta ahora, como ya anunciamos seguimos en la "no negociación", en la estrategia patronal de alargar el proceso.

Por otro lado, ayer, 9 de noviembre, tuvimos otra mesa de negociación, en este caso específica de Formación Profesional. En la última reunión STEILAS, junto al resto de los sindicatos, dejamos muy claro que las propuestas de las Patronales eran insuficientes para poder comenzar una negociación seria. A pesar de ello, ayer, Kristau eskola y AICE no trajeron nuevas propuestas y de nuevo la reunión se convirtió en una reunión sin contenido.

Desde STEILAS pedimos a las patronales que en la reunión del 29 de noviembre traigan también para la FP propuestas que permitan un acercamiento de posturas y que por supuesto respeten el convenio vigente. Como hemos repetido una y otra vez, estamos dispuestos a regular la FP, pero no hacia la precarización ni renunciando a derechos ya adquiridos.